

S.I. eta deserriko burbuilak

Irati Elorrieta Agirre

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2006



Zumaiko Udala

*enkar
txanpu*



S.I. eta deserriko burbuilak

Irati Elorrieta Agirre

Julene Azpeitia 19. ipuin lehiaketa

2006

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Irati Elorrieta Agirre (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

*Beste pertsona baten gelan bizi naiz
baina nire bizitzari begira nago.
Beti behar da leku bat
Beti behar da uda bat
Hartu diren erabakiak onartzeko.*

S.I. patio batean eserita dago zuhaitz baten gerizpean. Zuhaitza oraindik berde dauden albarikokez gainezka dago. S.I. ezkutatuta bezala dago patioko gerizpean. Postaria heltzen ikusi du, egurrezko postontzian gutun piloa sartzen. Gutun pilo horietan zer kontaktzen ote den galdetu dio bere buruari. Gutun pertsonalen bat egongo ote den, norbaiti sekreturen bat kontaktzen dionik ote dagoen tartean. Berari ez dio inork gutunik bidaliko. Inork ez daki motxila hartuta nora joan den S.I.

Babesean sentitzen da patio honetako itzaletan eserita. Babes sentimendu absurdo bat da, halabeharrez eseri baita patio honetan eta ez beste inongotan. Kanean gora eta behera dabilzan bizikleten hots urruna entzun dezake. Hots guztiak urrunean entzuten ditu, patioak isolatu egiten baitu kanpoko mundutik.

Patiora ematen duen leihoetako bat ireki da. Gizon gazte burusoil bat eseri da leihoan. *Bowl* bat du eskuartean eta atzamarrekin fruta zatiak sartzen ditu ahoan. Presarik gabe jaten du, zeruari begira, teilatuen formei begira. Gero, umeez ponpak egiteko erabiltzen duten botilatxo horietako bat atera eta burbuilak egiten hasi da.

Airean flotatzen ari diren burbuilek koloretako dirdirak egiten dituzte, bueltak ematen dituzte dantzan ari bailiran, eta apurtu egiten dira zaratarik egin gabe, mutu.

Burbuiletako batek S.I. harrapatu du. Edo burusoilari bere ikuspuntutik iruditu zaio patioan eserita dagoen neska burbuiletako batean sartu dela. Eta nolabait arrazoi du, S.I. edozein momentutan apurtzeko arriskua duen burbuila batean bilduta baitago, noraezean motxila batekin.

Beste leiho bat ireki da, baina ez da ikusten gelan nor dagoen. Txeloa

jotzen hasi da esnatu berria. Burusoila musikaren jatorrira begira jarri da eta burbuila talde bat bidali du norabide horretan. *Egunon*. Gero barrura sartu da.

S.I.k ezin du ikusi txelo jolea nor den, eta haren begiak are gutxiago, baina txelo joleak begi ameslaridun neska bat ikus dezake patioan eserita, burbuila artean galduta.

Instrumentua jotzeko duen moduagatik, S.I.k esango luke ez dakiela beste ezer egiten. Pentsatu du, beste ezer egiten jakingo balu, ezingo lukeela txeloa horrela jo. Tripan zerbait sentitu du. Barruan daraman umeak txeloaren soinua sentitu izan balu bezala.

S.I.k ume bat dauka tripan. Motxila batekin heldu da B. hirira eta leku bat bilatu behar du tripan daraman umearentzat.

Patioan arrosak daude, triziklo bat eta gorriz jantzitako ume bat korrika. Ume txikiek korrika egiteko duten era barregarri horretan, irribarrez. Tranbia hori bat ikusi du kanean gora, eta horrek erakarrita egiten du korrika kanpoko alderantz. Aita dirudiena irten zaio atzetik, traje urdin ilunez jantzita. Aita ere irribarrez doa. Ume txikiak ematen dion bizi poza ikusten du S.I.k gizonaren irribarrean.

Pentsatu du bere umeak ez duela aitarik izango, baina behintzat leku bat izango duela horrela korrika egin ahal izateko.

Txelo joleak patioan eserita dagoen neska zaindu nahiko luke. Eta jakingo balu tripan ume bat daramala, umea ere zaindu nahiko luke. Zergatik jakin gabe.

Eguerdi aldera patiora jaistea erabaki du txelo joleak. S.I.ren motxila hartu eta ea jatera igo nahi duen galdetu dio. Elkarri begira geratu dira. S.I.k zer erantzun ez dakiela, isilik, eta lehen begirada horrekin bi bizitza desegin dituztela sumatu gabe. Ez du zalantzan jarri motxila hartu duen eskua txelo jolearena dela.

Eskaileretan gora desagertu da gizona S.I.ren motxilarekin. Zabalik utzi du beheko atea. S.I.k ezin du ulertu zergatik gizon horrek uste duen bera atzetik joango zaiola.

Zer dakar honek motxilan? galdetu du burusoilak, harrituta, S.I.ren motxila eskuetan hartu duenean. Ametsez betetako gaztelu bat imajinatu du motxila barruan, eta barre egin du. S.I.k ez du ulertu burusoilak zer esan nahi izan duen bere barrearekin, baina irribarre batekin erantzun dio. Txelo jolea poztu egin da bere pisukidea eta neska gaztearen arteko topaketa positiboaz, eta berak ere irribarre egin du.

Hiru irribarre isil elkartu dira sukaldean, batek ere ez dakielarik zein den besteen zioa. Baina hirurek antzeman dute euren irribarreen hondotan dagoen tristura.

Ausarta zara H.ren sukalde esperimentalaren probatzea onartu baduzu, esan dio burusoilak. Inork ez dio esan zer zegoen jateko; makarroiak edo inoiz ikusi gabeko barazkiak. Hori jakin gabe ere, S.I. ez litzateke dagoen tokian egongo bere erara ausarta ez balitz.

S.I. mahaira eseri da H. deitzen den txelo jolearekin eta Sr. deitzen den burusoilarekin. Ez daki zer esan. Eurek ezin dute igarri tripan ume bat daramala. Eta berak ez daki nola esan. Ez daki zer egin umearekin. Non jarri umea. Baina H.k eta Sr.k berehala igarri dute S.I. zerbaiten beldur dela, eta esan egin diote,

ez izan beldurrik, erraza izango balitz bezala.

Gela bat eskaini diote beren etxean. S.I.k ez daki norena izan den eskaini dioten gela hutsa, baina bere motxila sartu du bertan.

Hiru gela ditu etxeak eta bik dute leiho bat patiora ematen duena. Hirugarrenaren leihoak kalera ematen du.

Sr.ren gelak espazio-ontzi bat dirudi lanpara laranja harekin eta han hemen dauden aparailu elektroniko guztiakin. Soinuak egiteko eta grabatzeko dauden aparailu mota guztiak ditu gelan. Batzuk tamaina oso txikikoak eta zilar kolorekoak dira, baina badaude beste batzuk, beste garai batekoak diruditenak. Denbora nahastuta dago espazio-ontzian.

H.ren gela egurrezko kutxaz gainezka dago. Biltoki baten antzean. Gordeta daukana aspaldian erabili ez balu bezala. Txeloaren kutxa zutik dago; pertsona bat bezain garaia da ia. Gelan sakabanatutako arropa guztiak beltzak dira. Lana dauka H.k egurrezko kutxetan gordetakoari begiratu bat ematen, zer gorde eta zer bota erabakitzeko.

S.I.ren gelan motxila bat dago hustu gabe.

Ez daki nola irten bere gelatik. Ez daki zer egin bere gelan.

H.k atean jo du eta erantzunik itxaron gabe sartu da. S.I. ikusi du ohe gainean eserita. Bere botatzarrekin sartu da gelan eta, ez daukanez non jarri, S.I.ren ondoan eseri da. Inork ezer esaten ez duenez, H.k eskua heldu dio S.I.ri. Dardarka dauka honek eskua eta H.k ez dio askatu dardara geratu den arte. *Izozki bat jatera goaz, bazatoz gurekin?* galdetu dio gero.

Eguraldiak ez dauka itxura onik, trumoiak hasiko dira edozein momentutan, baina kanpoan eseri dira izozki banarekin. Zeru grisa euren gainera jausten da eta, hala ere, udako aire epela sentitzen da. Kaletik dabilen jendeak badaki edozein momentutan entzungo direla trumoiak, euria egingo duela eta etxeko leihoak zabalik utzi dituztela. Baina uda da eta ez du inporta ilea eta oinak bustitzea, gelara euri pixka bat sartzea. Udan B. hiriko biztanleak ez dira halako kontuengatik kezkatzen.

S.I.k izozki txiki bat eskatu du, baina beste biek hiru boladuna erosi dute. Batak bestearenetik dastatu dute eta, zapore bakoitza komentatu dutenean, S.I.ren bola bakarreko izozkiari begira geratu dira. Txokolate zuria aukeratu du berak. Argi dago berarenetik ere probatu nahi dutela. Izozkiak esku batetik bestera pasatzen ari dira eta S.I.k zorionaren antzeko zerbait sentitu du izozkien erritual horren erdian. Ezer berezirik egin gabe ateratzen diote irribarrea. Istripuaz geroztik bigarrenez egin du irribarre, eta lehenengoz sentitu du zorionak eragiten duen ziztada hori. Trumoiak hastear daudela, izozkia jaten.

S.I.k kafea prestatu du. Patiora ematen duen leihoa irekita, kanpora begira eseri da kafearekin. Aita, ama eta ume txikia ikusi ditu mailetekin patioa gurutzatzen. Oporretan doaz norabait.

Kafearen usainak erakarrita, bi gizon esnatu berri agertu dira sukaldean. Ametsetan agertzen diren pertsonaiak bailliran. Oraindik ere begiak guztiz ireki gabe, ahoaren marra handitu zaie kafea baso banatan isuri dutenean. Egunkaria dago mahai gainean; batek orri batzuk hartu ditu, eta besteak gainontzekoak. Bake sentimendua sukaldean.

Txirrina jo du norbaitek. H.k atea ireki dio emakume ilegorri bati. Sukaldetik pasatu gabe H.ren gelan sartu dira, eta handik gutxira kalera irten dira.

Emakume ilegorria udako jantzi zuri bat aldean daramala, eta H. goitik behera beltzez jantzita.

S.I. bere gelan dago. Motxilak hustu gabe jarraitzen du, baina bazter batean dago orain. Loreak erosi ditu ohe ondoan jartzeko eta kaletik hartu dituen kartelak itsatsi ditu hormetan. Kontzertuenak, manifestazioenak, pelikulenak, erakusketenak, publizitatea zein eskuz pintatutakoak. B. hiriko kaleak kartekez josita daude, bata bestearen gainean jartzen dituzte, geruza lodi-lodiak osatzen diren arte. Haizea egiten duen batean, kartel geruza lodiok hormatik askatu eta lurrian botata geratzen dira. Bere hormetako kartelei begira dago S.I., hirian gertatzen den guztiaren zatitxo bati begira dagoela pentsatuz.

Ondoko gelan H. emakume batekin dago. Neskalgun asko ditu H.k. Elkarrekin mozkortzen dira, larrua jotzen dute, baten bat haurdun geratzen da, eta umea abortatu behar dute. Gutxienez hiru aldiz gertatu zaio. Hau guztia Sr.k kontatu dio, eta zerbaitez ohartarazi nahi balu bezala kontatu dio.

Beste gelan Sr. dago ordenagailuan lanean. Ez da bere gelatik atera egun guztian zehar eta marihuana usaina heltzen da aldian-aldian.

S.I. geldi dago bere gelako hormetako kartelei begira, etxean mugimendurik gertatuko ote den zain.

Sr.ren atean jo du, honek nola erantzungo duen beldurrez. Eurek egiten duten bezala egitea erabaki du: gelan sartu eta irribarre egin du azalpenik eman gabe. Bere gelara sartzeko aitzakiaren beharrik gabe, ohean etzan da. Lehenengoz egiteko, nahiko natural irten zaio. Ez dirudi Sr.ri arraroa iruditu zaionik. Lanean jarraitu du, baina, S.I.ren presentziaz ohartu dela adierazteko, aurikulareak kendu ditu eta bozgorailuetatik entzun daiteke konposatzen ari den musika.

Nola egin behar ote zen horrenbeste pentsatu eta gero, ez da bat ere zaila izan ohean etzanda egotea Sr.k ordenagailuan lan egiten duen bitartean. Bere gelan sentitzen zuen bakardadearekin alderatuta, askoz ere atseginagoa da Sr.ren eta bere musikaren konpainia. Azken egunetan egin duen euri guztiari esker, indartsua da patioko landareen berdea. Albarikokeek ere berde-berde jarraitzen dute adarretan pilatuta. Holako uda euritsu bat aproposa da etxean egoteko, ohean etzanda egoteko; musika entzun eta norberaren pentsamenduetan galtzeko.

—Ondo konpontzen zara Sr.rekin, ezta? —galdetu dio H.k patioan eserita dauden batean.

Egun atsegina egin du aspaldiko partez. H.k eta S.I.k elkarrekin sukaldatu eta patioan afaldu dute. Baina dagoeneko iluntzen ari da, eta freskatu egin du giroak. S.I.k etxera igo nahi du jertse bat hartzera.

—Gustura egoten naiz berarekin.

Jertse baten bila abiatu da, eta sukaldetik beste bi garagardo hartzeko aprobe txatu du.

—Bitxia da, ez dirudi antzekoak zaretenik, baina igartzen da oso ondo konpontzen zaretela.

S.I.k ez daki zertara datorren horretaz hitz egin nahi izatea, zerbait azpimarratu behar izatea. Ez dago esateko askorik. Baina H.ek ozen pentsatzen jarraitu du:

—Posiblea da antzeko iragan bat izatea edo.

—Iraganean antzekotasunak bilatzera jarrita, ia edonorekin aurkitu daiteke zerbait. Azken batean, hain-hain ezberdinak ere ez gara.

—Baina Sr. ez da jende askorekin egoten zurekin izaten duen lasaitasunarekin. Eta jende gehienak ere, ez du gaitasunik izaten bere ondoan hain lasai egoteko. —Nabaritzen da H.ek Sr. asko maite duela. S.I.k ez daki zein den euren istorioa, noiztik ezagutzen duten elkar, zergatik bizi diren elkarrekin.

S.I.ri grazia egiten diote H.ren ozeneko gogoetek, aspaldian ez baitu ezagutu Sr. baino konpainia errazagorik. Eta istripua gertatu zenetik, bere inguruan zegoen edonor jasan ezina egiten zitzaion. Pisukide berriek ez diote ezer galdetzen, ez dira urduri jartzen bere begietan ikusten duten tristuragatik, ez diote uneoro esaten pozik egon behar duela, hustu arte hitz egin behar duela. Eta ez da etxean bizi den neska berriari zer gertatzen zaion inporta ez zaielako. Berak ere ez dio galdetzen Sr.ri zergatik ematen dituen egunak bere gelan sartuta belarra erretzen. Ez dio H.ri galdetzen zergatik aspertzen den hain arin bere neskalagunekin.

—Ea noizko heltzen diren albarikokeak... —esan du H.k.

—Halako eguraldiarekin? Eguzkirik gabe ez dute berdetasun hori sekula galduko. —S.I.k ezin du sinistu albarikoke horiek inoiz jangarriak izango direnik.

Telefonoak jo du, eta ez da inor ohetik altxatu. Aurreko gauean berandu arte geratu dira sukaldean garagardoak edaten. Kanpoan euria ari zuen eten gabe. S.I.k ulertu du pazientzia galtzen duen lehena altxatuko dela, eta beste biek ez dutela pazientzia galduko. Ezin du gehiago jasan telefonoaren txirrina, eta ohetik jaiki da ondo jakin arren deia ez dela berarentzat izango —gutunak berarentzat izaten ez diren bezala.

—Bai?

—Egunon —esan du emakumezko ahots fin batek, ziurtasunik gabe. Isilik geratu da segundo batzuez— Sr. etxean al dago?

Non egongo da ba bestela ordu hauetan?, pentsatu du S.I.k.

Sr.ren gelara sartu da telefonoarekin eta ahal duen modurik goxoenean esnatu du —baina goxoegi izan gabe. Sr.k telefonoa hartu du eta S.I.k emakumezko ahotsa entzun dezake *zorionak* esaten. Sr.k telefonoa eskegi eta buelta hartu du lotan jarraitzeko. S.I. gelatik irten da telefonoarekin, ez daki zer egin. Erreflexu falta horretan dagoelarik, telefonoa deika hasi da berriro. Sr. ohetik jaiki da, bere gorputz lokartua mugitzeko itzelezko ahalegina eginez. Telefonoa hartu, deia moztu eta eskegi gabe utzi du. Gero duxara sartu da.

Euria bortizki erortzen zen arren, sukaldeko leihoa irekita utzi zuten ohera joan zirenean eta, goizean, fresko-fresko dago sukaldea. Mahai gainean zeuden garagardo botila guztiak, kartoizko kutxa batean sartuta, patiora jaitsi ditu S.I.k. *Aske sentitzen naiz*, esan zion S.I.k bart gauean. *Ba oraindik giharrak nahiko gogortuta daukazu...*, esan zion bere harridurarako H.k. Eta txelo jole esku horiek jarri zizkion lepo aldean. Indarrrik egin gabe estali zion lepoaldea hartzen duen muskulua, eta S.I.k beroa sentitu zuen gorputz osora zabaltzen. Oraindik ere prozesu luze bat aurretik zuela sumatu zuen S.I.k eta, hala ere, *aske sentitzen naiz*, esan zezakeen berriro. Aste batzuk lehenago, uda euritsu hartan bizitzen ari zena bizitzeko gai zenik ere ezingo zukeen imajinatu. Ez zekien nora eramango zuen horrek guztiak, baina beldurrik ere ez zuen jadanik. Burusoilak lehen egunean egindako burbuletako bat bezala sentitzen zen bera ere,

airearen apetara dantzan, aske. Eta apurtu behar badu, ba horrela dira gauzak. *Apurtzen banaiz, jarriko naiz berriz ere zutik*, pentsatu zuen S.I.k berekiko. Harrituta geratu zen, ze istripua izan zutenetik lehenengoz pentsatu du halakorik: zutik jarriko dela berriro. Hondartzarako bidean, kontrako norabidean, aurreko gaueko parranda bukatu gabe, kotxe gorria gainera etorri zitzaientetik. Eta konturatu da berriz altxatzean, beste mundu batean egon daitekeela eta beste pertsona bat izan daitekeela.

Sr. dutxatik irten orduko S.I.k kafea prestatu eta marrubiak garbitu ditu.

—Zure urtebetetzea al zen bart ospatu genuena?

Buruarekin baietz erantzun dio.

—Ez dakit zergatik deitu behar nauen zorionak esateko...

H. agertu da sukaldean galtzontzilotan, bere tripa zuria agerian, eta bostekoa eman dio Sr.ri

—Zorionak! Egunon. Nork deitu du hain goizetik?

—Yinyek.

Isiltasuna. Bakoitza bere kafe eta marrubietan kontzentratu da. Antza, Sr.ek erabaki du S.I. jakinaren gainera jartzea, eta Yinyeren istorioa kontatu du:

—Nire neskalaguna zen. Gurekin bizi izan da zu hona etorri aurretik. — Marrubiak sartu ditu ahora, hitzen artean tarte luzeak eginez, gogoratzea zaila egiten zaiola erakutsiz— Elkarrekin ume bat izatea proposatu nionean, erantzun zidan nirekin ume bat izateko prest egongo litzatekeela droga mendekotasunak usteko gai naizela sinistuko balu. Baina ez zuela sinisten ni zerbaitera lotuta egon gabe bizi naitekeenik. Orduan, sei hilabetez egon nintzen ezer hartu gabe, ezer erre gabe, ezer edan gabe, eta berriz galdetu nion zer zen gure umeaz. Esan zidan ez zuela nigan konfiantzarik, eta ezin zuela nirekin umerik izan. Beste planeta batean bizi naizela eta berak ez zekiela planeta horretan bizi nahi zuen. Horrela izatekotan hoberena joatea zela esan nion.

S.I. harrituta dago. Inoiz ez dizkio Sr.ri hainbeste hitz jarraian entzun.

—Hau ez da ezer —esan dio H.k S.I. pentsatzen ari dena asmatuz—, benetan hasten denean, uzten badiozu, ez da gelditzen.

S.I. gustura dago normalean hitz gutxi egiten duten bi gizonekin. Eta bera ere, hain hitzuna izanik, hitz gutxiko bihurtu da beraiekin. Baina Sr.k Yinyeren istorioa dena jarraian kontatu dionean, onartuago sentitu da etxe horretan. Eta tripara eraman du eskua, esan nahiko balu bezala, *nik ere badaukat zerbait kontatzeko, nik ere galdu dut norbait*. Baina ezin du.

Komunera altxatu da hortzak garbitzera. Ez daki zer egin. Kalera irten eta merkaturen batetik paseoren bat eman, edo berriro ohean sartu irakurtzera. Eguzkia irteten denean badirudi kalera atera beharra dagoela, eguzkia aprobetxatzera. Dutzaren bazterrean eserita dago hortzak garbitzen, eta H. sartu da. Bere hortzetako eskuila hartu eta S.I.ren aurrean eseri da; aurrez duten aparrez betetako ahoari begira biak.

—Erabiltzen ari zaren eskuila Sr.rena da.

S.I.k ahotik atera du eskuila gorri bat. Ez da berea. Barrez hasi dira eta aparra ateratzen zaie ahotik. Sr. komunean sartu da, eta S.I. eskuila aldatzen harrapatu du. Bakoitzak berearekin, elkarrekin, hortzak garbitu dituzte eta,

eguzkitako betaurrekoak jarrita, kalera irtetea erabaki dute.

Dantzan egitera atera dira. S.I.k denbora asko darama dantzan egin gabe. Dantzan egiteko sentitu behar duen askatasuna sentitu gabe. Ez du alai egon behar, baina gutxitan sentitzen duen askatasuna sentitu behar du. Nahiz eta triste xamar egon. Dantzan eginez tristurak irribarre forma hartzen dio ezpainetan. Begiak itxita ari da dantzan, unibertsoaren zentroa bera dela sentituz. Bere umearentzat unibertsoan leku egoki bat aurkitu duela sentituz.

—Bera ez — esan dio Sr.k H.ri.

H. S.I.ri begira dago.

—Begirada hori ezagutzen dut; bera ez.

—Zergatik ez? —H.k pentsatu gabe galdetu du.

—Zortea izan dugulako berarekin. Ez dizut utziko hau zapuzten, dena kakaztuko duzu horrela begiratzen badiozu. Zergatik nahi duzu beti posiblea ez dena?

H.k bere kolporako galdetzen du, ea Sr.k zergatik uste duen ez dela posiblea. Baina arrazoia du, ez dio horrela begiratu behar.

Sr.k badaki zer esaten duen. Sr.rentzat ez dago ondo bukatuko den istoriorik. H.k bere patua omen dena aldatu nahi du. Egia ote da ezin duela inorekin maitemindu? Zerbait nahi duenean posiblea ez delako bakarrik desiratzen al du?

H. emakume batekin dago bere gelan. Musikari eskuekin bere gorputz biluzia zeharkatzen. Baina beste norbait dauka buruan. S.I. ondoko gelan dago lo. Ondoko gelan dagoena du H.k gogoan. Eta Sr.k dantzalekuan esan zizkion hitzak: *Bera ez*. Zergatik ez? Zergatik uste du min emango liokeela? Negar egin nahi du munstro bat bezala sentitzen delako. Bere lagunak munstro bat dela pentsatzen al du? Berak ez al du inoiz maitemintzeko eskubiderik? Inoiz emakume zirimola horretatik atseden hartzeko aukerarik? Ez al du bakea sentitzeko eskubiderik ordura arte fundamentuzko inorekin gurutzatu ez delako? Negar egin nahi du injustizia horregatik, baina nola hasiko da negarrez emakume honen gorputza laztantzen ari denean? Zer pentsatuko du berari buruz? Gizon izan behar du, eta aurrean biluzik duen emakumea desiratu behar du, eta plazera sentiarazi behar dio. Eta behar guzti horien artean, ez dago malkotarako lekurik.

Leihora zuzendu du begirada eta albarikokeak horixka bihurtzen ari direla ikusi du. Laster egongo dira jateko sasoiari.

Izan nahi izan ez dituen umeengan pentsatzen du.

Eta bere etxean bizi den neskarekin bai izango luke ume bat.

Bi astetan ez du berarekin hitz egiten.

Bi astetan ez du begiratzen, eta ez dute elkarrekin ezer egiten.

Baina berarekin ume bat nahi izaten jarraitzen du.

Egun batean esan egiten dio.

Bere gelako atea jo,

erantzunik itxaron gabe sartu da,

eta esan egin dio:

Ume bat izan nahiko nuke zurekin.

S.I. zoriontsu izango litzateke

H.ren ume batekin tripan.

Eta zer egin dagoeneko tripan duenarekin?

Baina ez dakite nola egin.

Ez dakite nola egin

horrekin amestetik

elkarrekin oheratzera pasatzeko.

Denbora horretan, Sr.k ez daki zer ari den gertatzen, baina tentsioa igarri dezake bere inguruan. Zer gertatzen ari den jakingo balu, hondamena aurreztearren, zalantzarik egin gabe hilko lituzke biak. Kanpotik begira dagoenaren objetibotasunak ematen dion eskubidearekin hilko lituzke bere bi pisukideak. Pozoituta hilko lituzke agian, antzerki drametan gertatzen den bezala. Benetan? Kanpotik epaitzeko eskubidea hartuko luke bere gain? Egia esan, barru-barruan sentituko luke biak hiltzeko grina, baina bere bizitzan agintzen duten printzipioei jarraituz, zuloan erortzen utzi beharko lieke, eta handik irteteko behar duten denboran, ondoan egon. Guzti horregatik, Sr.k tentsioa nabaritzen du, baina nahiago du ez jakin.

Umearen inguruko elkarrizketa izan zutenetik, gauak dira txarrena. Bakoitza bere gelan sartzen da, eta ohe gainean eserita pentsatzen du nola egin elkarrekin ume bat egiteko.

Sr.k aukera izango du biekin bakarka egoteko. Baina bere izateko moduagatik, ez die ezer galdetuko. S.I.rekin eserita egongo da sukaldean eta ohera joateko te bat prestatuko du. Ia hitzik esan gabe hartuko dute infusio lasaigarria eta S.I.ri gaia ateratzeko aukera emango dio. Baina S.I.k ez du ezer esango, eta Sr.k ez du ezer galdetuko.

—Zereginen bat bilatu behar dut. Hurrengo hilabeteetan lanpetuta izango nauen zerbait asmatu behar dut —esango dio Sr.ek. —. Lagun batekin elkartu naiz gaur, posiblea da berarekin aurrera egitea. Hirian dago aste honetan lan kontuengatik. Diskoetxe pare bateko arduradunei entzun araziko die azken asteetan egin dudana.

S.I.ri gustatzen zaio azken asteetan Sr.k egin duena. Egoera malenkoniatsuegi batetik irteten hasi da.

—Datorren astean albarikokeak jateko prest izango ditugu —kalkulatuko du Sr.ek.

—Astebete baino ez? Bi aste beharko dute oraindik.

Gauetz albarikokeen formak baino ez dira ikusten adarretan, eta ezin da jakin. Bigarren te bat ere hartuko dute ohera joan aurretik.

H.rekin ere egongo da bakarka. Vodka botila batekin helduko da H. gauerdian eta Sr. sukaldean arrautza bat frijitzen aurkituko du. Porro bat erre du pelikula bat ikusten zuen bitartean eta gosea sartu zaio. H.k galdetu nahiko dio

zergatik esan zion hain ziur *Bera ez*. Esaldi horrek ez diola lorik egiten uzten. Vodka botila erdia edango dute bien artean, baina, ez batak ez besteak, ez du gaia aterako. Teoria konspiratiboen inguruko elkarrizketa labirintiko batean murgilduko dira.

—Noizko uste duzu egongo direla albarikokeak?

—Nigatik bihar bertan hasi gaitezke batzen.

—Itxaron dezagun oraindik egun pare bat.

Hurrengo goizean, erdi hutsik dagoen Vodka botila aurkituko du S.I.k mahai gainean, eta sukaldea dirdira egiteraino garbi.

Bitartean H.k larrua jotzeko neskalagunak izaten jarraitzen du, eta inork jakin gabe existitzen den umeak S.I.ren tripan hazten jarraitzen du.

Saiatzen dira inoiz bakarrik ez geratzen.

Sr. dantza egitera irten da gau batean. Gauza ona da berez. Yinye etxetik joan zenetik gutxitan irteten da lehengo lagunekin. Agian lehengo adiskidetasunak berreskuratzen hasi da. Agian bere bizitza berrantolatzen hasi da.

S.I. sukaldean eserita dago H. agertu denean. Kontzertu bat ematetik dator. H.ek berarekin hitz egiteari utzi zionetik, S.I.k ez daki noiz duen kontzerturen bat, eta beraz ezin du joan ikustera, entzutera. H.ek txeloaren kutxa lurrean utzi du, zutik, eta S.I.rengana hurbildu da besarkada bat ematera.

—Etorriko zara hurrengo kontzertura?

—Ondo irten al da gaurkoa?

—Hasi aurretik beti pentsatzen dut ez naizela gai izango, eta, kontzertua bukatzen denean, edozertarako gai naizela sentitzen dut.

Ez dago argi zergatik ez duten elkarrekin hitz egiten, zergatik ez duten elkarrekin ezer egiten, hori izanik hain zuzen ere biok nahi dutena. Afaltzera irten nahi dute, pelikulak ikusi nahi dituzte, teilatuan lo egin nahi dute, gauez bainu bat hartzera joan nahi dute, bizikletan ibili, bidaia luze bat egin. Ardo botila bat eta bi edalontzi atera ditu H.k. Edaten hasi eta pozik jarri dira. Barre asko egin dute. H.ren gelara doaz. Ohea leihoaren parean dauka, eta ohe gainean etzanda daude patiora begira. Patioko zuhaitza fruituak ematen ari da, laranja kolorea hartzen ari dira berde zeuden albarikokeak. Uda amaiera da eta S.I.k pentsatzen zuen inoiz ez zirela laranja bihurtuko. Baina azken asteetan eguzki nahikoa jaso dute eta albarikokeak jateko aukera izango dute uda amaitu baino lehen. Leihoa zabaldu nahi dute eta besoak luzatu zuhaitzetik albarikoke bana hartzeko.

Edan dutenez, oso erraza da dena. Biluztu dira, eta denbora luzea daramate batak bestearen gorputza laztantzen. Baina H.ri ez zaio gogor jartzen. Ezin du. Elkarren ondoan lo geratu dira; gorputz gazte bat, eta bigun bat bere ondoan. Pentsa daiteke zerbaitengandik salbu geratu direla. Lortu dutela hondamena eragozte. Bi albarikoke hezur erori dira lurrera.

Ez dute lo askorik egin. Leihotik begira daude berriro eta Sr. etxera sartzen ikusi dute. Egunsentirako heldu da etxera, eta, ziurrenez, ohera sartu aurretik teilatura igo eta porro bat erreko du eguzkia nola irteten den begira. Korapilo bat eginda daude ohean, eta ezin dute imajinatu zenbat denbora pasatu beharko den bata bestearen ondoan berriz ere hain ondo sentitu ahal izateko. Hainbeste egun daramate elkarrengandik urrun, distantzia mantenduz,

amodioa egitea dela elkartzeko duten aukera bakarra. Nahiz eta agian arinegi den biontzat. H.k ez daki S.I.k ume bat duela tripan. Berdin jokatuko ote luke ezer jakingo balu? S.I.k badaki ez duela leku nahikorik bi umerentzat bere tripan. Baina momentu horretan H. bakarrik maite du, burbuila batean sartuta egongo balira bezala, beraiek dauden gelatik kanpo mundua existituko ez balitz bezala. Burbuila edozein momentutan apurtuko dela pentsatu nahi gabe. Zer gertatuko da beraiekin, jadanik ume bat hazten zegoen lekuan ume bat egin eta gero?

Sr. etxera heldu denerako berandu da desastrea eragozteko. Ume berria tripan du S.I.k. Jadanik tripan zegoen umeak bere espazio defendatzen du, eta elkar hiltzen dute borrokan. S.I.k igarri egiten du biak bere barruan hiltzen direnean. H.ri begira geratu da, ez dauden erantzunen zain.

S.I.k uda guztian desegin ez duen motxila jaso du, eta etxerako hegazkin billete bat erosi du. Aurreko egunean zuhaitzera igo dira eta bost kutxa bete dituzte albarikokez. S.I. motxila hartuta etxetik atera denean, H. bere gelan sartuta dago egurrezko kutxetatik gauzak ateratzen. Sr. lo dago, begi bat ireki eta bere gelan hiru txoritxo sartu direla ikusi du. Bidaiarako albarikoke batzuk hartu ditu S.I.k zuhaitzetik. Hegazkinean eserita, pentsatu du burbuila bat leku zurrak dela, baina denbora gutxirako, eta, beraz, ez dela egon burbuila baten barruan. Bera egon den lekua ez baita zurrak, baina bai denbora luzerako. Badago oraindik denbora beste ume bat egiteko. Baina denbora behar da zauriak sendatzeko.